



III. ERANSKINA

GOBERNUAREN EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUAK PRESTATU, IZAPIDETU, ONARTU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO PROZEDURA

1.- SARRERA.

Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia eta Legegintza Egutegia, biak ere, ohiko erremintak dira gobernuaren ekintzaren planifikazioan eta koordinazioan. Helburua da gobernuaren jardueratik, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsu kategoria daukatenak zein diren identifikatzea eta, helburuetan nahiz denboran, zehaztea. Kategoria horretan, zehazki, hauteskunde-programan adierazitako konpromisoak betetzeko lehentasunezkoak diren plan eta jarduerak sartzen dira; baita Jaurlearitzak Legegintzaldirako duen ikuspegi estrategikoa erakusten dutenak ere.

1.1.- Egutegia prestatzeko fasea

Gobernu Kontseiluak 2009ko abenduaren 22an hartutako akordio baten ondorioz jarri zen martxan prozedura. Akordio hark prestatze-lanak hasteko agindua eman zuen, **eta Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari ahalmena eman zion, batetik, defini zitzan zein izango diren sail bakoitzak bere plan eta jarduera nagusiak zein diren identifikatzeko jarraibideak, horren arabera sartzeko egutegian, eta, bestetik, dokumentu sistematizatu eta homogenoa sortzeko, sailetatik informazioa jasotzeko ereduak finka zitzan.**

Jarraibide horiek proposatzen zuten gobernuaren plan eta jarduera nagusien multzoan lehentasun politikoan eta herritarren kezken ildoan doazen gobernu-lanak sartu behar liratekeela, soil-soilik, eta aldi berean aldaketa handia, berrikuntza edo, barruan edo kanpoan, eragin handia dakartenak. **Irizpide horiek kontuan hartuta, gobernuaren konpromisoa taxutu dugu:** “2009-2013 epeko IX Legegintzako Gobernuaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegia” dokumentua prestatu dugu. Akordio honen bidez onetsi da dokumentu hori.

Plan eta jarduera nagusi bakoitzarekin batera, sailek, bakoitzak bere aldetik, **oinarrizko informazioa** prestatu dute, proposamena aztertzeko eta egutegiarekin batera argitaratzeko, **jardun publikoaren gardentasuna bultzatu nahian.**

1.2.- Gobernuaren Egitasmoen Egutegitik kanpo utzi diren planak

Planak edo sailarteko planak, batzuetan, sailean bertan lantzekoak dira garbi-garbi, edo, eskumen-esparruz, sailaren jardun arruntaren baitakoak dira berez, bada, Gobernuaren Egitasmoen Egutegiak ez du halakorik bildu, legezko obligazioetatik eraturakoak izanagatik edo nabarmenak, berritzaileak edo lehentasun politikoaren ildokoak izanagatik ere.

Plan horiek izapidetzerakoan, planak ezarritako arauak aurreikusten duen prozedurari jarraituko zaio eta, ez prozeduraz ez planaz beraz, ezer aurreikusirik ez badago jarduera motari dagokion izapideari jarraituko zaio.

Edozein arrazoi dela-eta, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegitik kanpo utzitako planen bat legebiltzarrerara bidali behar bada, Gobernu Kontseiluari jakinarazi beharko zaio lehenik, organo horrek plana legebiltzarrerara bidaltzeko agindua eman dezan, nolako izapidea eskatzen den zehaztuta.

Gobernu Kontseiluari haren berri eman, eta kontseiluak legebiltzarrerara bidaltzeko erabakia har dezan, sail eragileak, gutxienez, 30 egun lehenago bidali beharko dio Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari, Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian sartu ez denez, legebiltzarrerara eramatekoa den plan hori.

Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak, ondoren, Koordinaziorako Zuzendaritzari hori aztertzeko aginduko dio, beti ere, plana kontrastatzeko, bai gobernu-jardunaren orientazio orokorrarekin, bai onetsi den edo onesteko bidean dagoen gobernu-planifikazio osoarekin eta, kasuaren arabera, baita tartean izan daitezkeen eskumen-lehiekin ere.

Gai honi buruzko aipamen eta ohar guztiak sail eragileari jakinaraziko dizkio gero, ezer aldatu beharrik balego, dena delakoa alda dezan Gobernu Kontseilura bidali aurretik.

Edonola ere, Gobernu Kontseiluari aurkeztu beharreko akordio-proposamenaz bat, organo horrek, orokorrean, bere parte hartzeari eta akordio motari buruz egin behar izaten dituen txostenak ere aurkeztu beharko dira; bereziki, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena (EAEko Kontrol Ekonomikoa eta Kontuei buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 22.1. a) artikulua aurkezteko agintzen du-eta).

1.3.- Onetsitako Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegiari aldaketak egitea

Egutegia **dokumentu ireki eta dinamikoa** izateko diseinatuta dago, orain hasitako prozesuak ez baitu bermatzen legealdiko edozein unetan, egoeraren analisia egin ondoren, ez denik ezer aldatuko. Baliteke zenbait plan edo jarduera nagusi sartu edo kendu behar izatea denboraren joanean.

Egutegian proposamen berriak sartu nahi izatera, gaur egungo Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian sartuta daudenen kasuan egin behar izan den prestaketa-lana egin behar da aurretik. Hauxe:

- lehentasunak zein diren aztertu
- egitasmoa eta jarduera esanguratsua izango den horren oinarrizko informazioa osatu

Eduki horiek dokumentu batean bildu behar dira, eta Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari bidali, egutegiaren kasuan egin bezalaxe, sail proposatzailearen balorazioa Jaurlaritzaren Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian sartzeko ezarri diren parametroekin kontrasta dezan.

Ikusiz gero formulatutako dena delako plan edo jarduera horrek benetan betetzen dituela Jaurlaritzaren plantzat jotzen direnek bete beharreko ezaugarri bereizgarriak, orduan prestatuko da kasuan kasu dagokion akordio-proposamena, Gobernu Kontseiluak egutegian sartzeari baiezkoa eman diezaion eta proposamena Eusko Legebiltzarrera bidal diezaion.

Dagoeneko egutegian sartuta **dauden egitasmo edo jarduerak egutegitik kentzeko**, Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari behar beste dokumentu eta informazio bidali behar zaio, Gobernu Kontseiluak izapidetu dezan eta, gerora, Eusko Legebiltzarrari jakinarazi.

2.- GOBERNUAREN EGITASMO ETA JARDUERA ESANGURATSUAK PRESTATU, IZAPIDETU, ONARTU, JARRAITU ETA EBALUATZEKO PROZEDURAREN FASEAK

Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiak, akordioa adostu eta hamabost eguneko epearen barruan, **“Sailek Gobernu Planak prestatzeko jarraibideak”** izeneko dokumentua **bidaliko die sailei, planifikazioa egiten laguntzeko, batetik, eta jarraibide homologoak bultzatzeko, bestetik, gobernu planen integrazioari laguntzeko.** Jarraibide horiek izango dira, izan, **“Jaurlaritzaren egitasmo eta jarduera esanguratsuek prestatu, izapidetu, onartu eta zaintzeko prozedura”** honetan adierazitako edukiak lantzeko oinarria.

Dokumentu horretako edukiak orientaziokoak dira sailetarako, gobernu planak egiteko lagungarri; halere, edukiok ezinbestekoa dute parte-hartzea eta gardentasuna bultzatzea eta planen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

1. fasea: Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak markatzea

Egutegian sartutako planak prestatu aurretik, **planaren oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak markatu** behar dira. Hau da, **honako puntu hauek zehaztu beharko ditu sail eragileak:**

- ikuspegi orokorra, edo botere publikoek esku har dezaten gizartean dagoen eskaera.
- legegintzaldiko helburu estrategikoekin bat etortzen den.
- aukerarik ba ote daukan beste politika publikoren batzuei bultzada emateko, eta zein eskumen-perspektiba duen.
- sailen artean edo erakundeen artean koordinatzea beharrezkoa edo egokia izango den.
- orientazio globalak eta tartean den jardun-eremuari buruzko joerak.
- erabilgarri dauden baliabideen arabera, zein izango diren planak ezarri nahi lituzkeen neurriei muga jarriko dieten bereizgarri ekonomikoak.



Horrela osatuko den dokumentua, “Planaren oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak” izenekoak, **Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiari bidaliko zaio, hura ardura dadin Ekonomia, Aurrekontuak eta Kontrol Ekonomikoko Sailordetzari txostena eskatzeaz, ikusteko proposamena bat ote datorren ordenamendu ekonomikoarekin eta aurrekontuaren aurreikuspenekin, planaren iraupena kontuan hartuta. Txostena 15 eguneko epearen barruan eman behar da.**

Bestalde, **Koordinaziorako Idazkaritza Nagusiko Koordinazio Zuzendaritzak** ere, bere aldetik eta 15 eguneko epe horren barruan, **txostena prestatu beharko du, ikusteko proposamena bat ote datorren Jaurlaritzaren planifikazioarekin eta ondo egokitzen ote zaion, eskumenei eta alderdi juridikoari dagokionez, EAEko erakunde-artikulazioari.**

Planen ildo estrategiko eta ekonomikoen edukiak kontuan hartu behar ditu, ezinbestean, **txosten bi horietan adierazitako oharrak eta aipamenak.**

2. fasea: Plana egitea

Fase honetan, gobernu-plan bat onartzeko oinarrizkotzat jotzen diren edukiak garatuko ditugu. Hamar atal hauetan daude egituraturik:

1. **Planteamendu objektiboa.- Asetu beharreko premia publikoak** zein diren ikusi, eta ikusi, era berean, lortu beharreko dena delako **programa-helburuarekin** zein lotura duten.
2. Definituriko helburua gogoan harturik, **egoeraren diagnosis** egitea.
3. **Zein esparrutan jardungo den mugatzea** (administrazioaren beraren baitan), **tartean diren eskumen-esparruak** (erakundearteko eremua, eta hurbileko beste erakunde-eremu batean beste planik edo programarik landu badute edo lantzen ari badira, plan eta programa horiek ere bai) eta **erreferentziako lege-esparrua**.
4. **Jokalekuak** deskribatzea eta, **aukera guztien artetik, zein jarduera aukeratu den**, betiere, diagnosis jasota dagoen koiuntuaren arabera eta eskura ditugun edo ustez izango ditugun langileen eta baliabideen arabera.
5. **Lanerako ardatz estrategikoak** zehaztea eta, beharrezkoa bada, **ardatz bakoitzerako zein jardun-ildo zabalduko den**.
6. **Garatu beharreko jarduerak** hobeto zehaztea. Proposaturiko **ardatz estrategikoen** eta aurrera bidean erabili beharreko metodologiaren arabera ordenaturik egongo dira.
7. **Planteamendu subjektiboa.-** Plana egiteko prozesuan eta martxan jartzeko orduan, erakunde arteko harremanetarako formulak (eragile inplikatu modura identifikaturiko gainerako sailak eta beste herri-administrazio batzuk), eta gizarteko eta ekonomiako eragileen eta herritarren **parte hartzea**.
8. **Erabili behar diren baliabide ekonomikoak** zehaztea.
9. **Plana kudeatzeko eredia.**
10. **Planaren jarraipena eta ebaluaketa egiteko sistema.**



Planak bere baitan zer eduki behar duen zehazteko orduan, zerrenda hori ez da derrigor hitzez hitz hartu behar, eta egitura ere ez da planera nahitaez zurrun-zurrun eraman behar (hori bai, datu-sekuentzia argigarriena darabilena eta gehien erabiltzen dena hartu dugu). **Baina, edonola ere, planaren edukien artean, atal horiek ondo identifikaturik egon beharko dute.**

3. fasea: *Planei buruzko txostenak egitea*

Testuari agiri itxura eman, "... Egitasmoa" izena jarri, eta Koordinaziorako Idazkaritza Nagusira bidali beharko da. Han ikusi beharko dute ea "**Egitasmoaren oinarritzko ildo estrategiko eta ekonomikoekiko**" inolako alderik badagoen edo ez –**haiei buruzko txostena lehenagotik egina baitute-, eta, alderik baldin badago**, Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzari txostena egiteko eskatuko dio, jakiteko ea proposamenak ekonomia-araubidea betetzen duen eta planaldirako aurreikusita dauden aurrekontu-zehaztasunak betetzen dituen (15 egunetan egin beharko du).

Eta Koordinaziorako Zuzendaritzari, berriz, eskatuko dio gehienez ere 30 eguneko epean gai hauei buruzko **txostena** egiteko:

- hauteskunde-programan, gobernu-programan edo karguhartze-akordioan jarritako edukiak eta helburuak.
- beste administrazio-esparru batzuetan gai hauek direla-eta egiten dituzten politikak (Europar Batasunean, estatuan, autonomia-erkidegoetan eta abar).
- Jaurlaritzaren plangintza orokorra.
- legez eta eskumenez Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen arteko banaketa zaintzen duen.
- plangintzaren alderdi nagusietan, metodologiaren aldetik koherentzia teknikorik badagoen edo ez.

Plana sustatu duten sailek, txostenak ikusita, egin beharreko aldaketak egin, eta, txostenetan adierazi zaien zer edo zeri kasurik ez egitea erabakitzen baldin badute, zergatia ere adierazi beharko dute, nahikoa zehatz eta berariaz. Arrazoi-azalpen horiek espedientean jasota geratuko dira, planari buruzko txostenekin batera, eta, gero, Gobernu Kontseiluak hartu beharko du dena delako akordioa, planaren testua bidaltzen diotenean, hara bidali behar baita, hark onar dezan.

Bi txosten horiek egiten diren edo ez alde batera utzita, Gobernu Kontseiluak gaia esku artean hartu baino lehenago, **indarrean dauden arauen arabera derrigorrezkoak diren gainerako txosten guztiak ere jaso beharko dira espedientean.**

4. fasea: *Plana onartzea*

Fase honetan, **Gobernu Kontseiluak dena delako plana onartzeko akordioa hartu, eta Eusko Legebiltzarrari jakinaraziko zaio**, nolako izapidea eskatzen den zehaztuta.



Akordio horretan, **onartu den planaren jarraipenerako eta ebaluaketarako sistemari** buruzko atal bat ere jaso beharko da (**5. fasea**). Atal horretan egongo da zehazturik plana gauzatzeko beharrezko agiriak emateko eta denbora jartzeko konpromisoa.

Orain arteko 1, 2, 3 eta 4. faseek planen tramitazioari buruz besterik ez dihardute, eta ez dira Jarduera Esanguratsuetan aplikatuko, kasuan kasu eta formaz zehaztuko baita nola tramitatuko diren jarduera horiek.

5. eta 6. faseak planetan aplikatu ahal izango dira, eta baita, berariaz hala adierazten denean, Jarduera Esanguratsuetan ere.

5. fasea: *Egitasmoen eta Jarduera Esanguratsuen jarraipena eta ebaluaketa*

Sei hilean behin, gobernuko sailek Koordinaziorako Idazkaritza Nagusira memoria bat bidali beharko dute, eta han azaldu Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuen Egutegian jasotako konpromisoak zenbateraino bete diren, eta konpromiso horiek direla-eta zer-nolako gorabeherak gertatu diren.

Gai hauen inguruabarrak ebaluatzeko informazioa ere bidali beharko dute Koordinaziorako Idazkaritza Nagusira (Gobernu Kontseiluak dena delako plana onartzeko hartzen duen akordioan zehaztuko da zein maiz):

- jarduerak nola doazen aurrera, aintzat hartutako helburuak egokiak diren edo ez jakiteko.
- aplikatzen ari den kudeaketa- eta jarraipen-sistemaren kalitatea.
- jarritako helburuak nola ari diren lortzen.
- espero ziren gauzekiko aldeak.
- azken emaitzak ustez nolakoak izango diren.

6. fasea: *Ex-post ebaluaketa*

Egitasmo eta Jarduera Esanguratsuak amaitzen direnean, ebaluaketa bat egingo da, ikusteko haien bidez martxan jarritako politika publikoak noraino iritsi diren eta zenbateko eragina izan duten.

Kontuan izan ebaluaketa horren misioa hau dela:

- 1) Erabakiak hartzeko eta herri-administrazioak taxutzeko eta kudeatzeko **ardura dutenei informazio egokia ematea**, garatzen dituzten politika publikoetan aldatu beharrekoa aldatzeko, aurretiaz jarritako helburuak lortzearren.

2) **Herri-aginteeek beren lanean hartu zituzten konpromisoak eta ernarazi zituzten usteak zenbateraino bete diren ezagutzeko bidea ematea** eragile ekonomikoei, gizarteko eragileei eta orokorrean herritarrei, **eta zein iritzi duten azaltzeko bidea ematea.**

Hori horrela izanda, ebaluaketak gai hauei buruzko iritzia azaldu beharko du:

- dena delako eskuhartzeak arrakasta izan duen edo ez.
- diseinatu zen estrategia egokia zen edo ez.
- errealitatea etengabe aldatzen denez, nahikoa malgua izan den eta nahikoa ondo egokitu den.
- eraginkortasuna eta eragimena.
- erabili diren kudeaketa- eta jarraipen-tresnak egokiak izan diren.
- lortu diren emaitzak eta eraginak.
- planetan hurrengo batean garatu beharreko ildo estrategiko eta ekonomikoak ere zehaztu beharko dira.
- hurrengo plan edo jarduera esanguratsu baterako, zer zuzendu beharko litzatekeen jakiteko proposamena.

Dena delako plana edo jarduera esanguratsua amaitu eta hurrengo ekitaldian bidali beharko da ebaluaketa-agiria Koordinaziorako Idazkaritza Nagusira.

Koordinaziorako Zuzendaritzak txostena egin ondoren, plan guztien expost ebaluaketa-agiria Gobernu Kontseilura bidali beharko da, Gobernu Kontseiluak horren berri izan dezan eta Legebiltzarrera bidal dezan.

Ekonomiako eta gizarteko eragileei eta interesa duen edonorri dena delako plangintzaren ebaluaketara iristeko bidea zabaltzearen, Koordinazioko Idazkaritza Nagusiak, tartean diren sailen lankidetzarekin, horretarako moduak eta prozesuak ezartzeko ahaleginak egingo ditu. Horretarako, ahal dela, egon badauden informazio- eta komunikazio-tresnak erabiliko dira, eta lankidetzarako esparruak ere bai, halako esparrurik zabaltzen bada behintzat.